



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

2023ko otsailaren 17a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- 10-23/PRO-00003. Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerria talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- 10-23/PRO-00004. Foru Lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (6. or.).
- 10-23/PRO-00005. Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).
- 10-23/PRO-00006. Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (12. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-23/MOC-00007. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen dira koordinatu daitezen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari. Osasun Batzordeak onetsia (18. or.).
- 10-23/DEC-00005. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Turkian eta Sirian izandako lurrikara suntsitzaileak kaltetutako pertsona guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.)

F SAILA:**Galderak:**

- 10-23/POR-00068. Galdera, Ekonomia Sozialaren mugaz gaindiko I. Plan Integralari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (19. or.).
- 10-23/POR-00069. Galdera, Iruñeko aireportuko zerbitzua hobetzeko neurriei buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (20. or.).
- 10-23/POR-00070. Galdera, enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune espezifikoko berria abian jartzeko datari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- 10-23/PES-00053. Galdera, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamenaren tramitazioan ageri den kodeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (21. or.).
- 10-23/PES-00054. Galdera, banku-entitateei, batez ere landa eremuan, arreta presentzialerako pizgarriak ematera prematzen duen mozioa betetzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (22. or.).
- 10-23/PES-00055. Galdera, “Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntza, LGTBI+ arloa sustatu eta laguntzeko” kontusaileko diru kopurua aldatzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (23. or.).
- 10-23/PES-00056. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. taula zuzentzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (24. or.).
- 10-23/POR-00024. Galdera, Nafarroa Arena Pabilioiaren eremuko herritarren energia-komunitatearen proiektuari buruzkoa. Idatzizko galdera bihurtzea (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-23/PRO-00003. Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa.

2. Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeak txikizkako merkataritza-jardueraren antolamendua mamitzen eta arautzen duten printzipioak eta txikizkako merkataritza-establezimenduen ezarpena edo instalazioa arautzen duten printzipio gidariak ezartzen ditu. Merkataritza udalerrietako hiriguneetan kokatzea sustatzen du, bizitegi-erabileren eta merkataritza-jardueren arteko orekari eusten dion hiri eredia indartzen du; hiri ingurunearen garapen jasangarria helburu, eta mugikortasuna murrizten du, alferrikako joan-etorriak saihesteko, azpiegitura publikoak itotzen baitituzte eta airearen kutsadura areagotzen. Foru lege horren 17. artikulua bizitegi-erabileren eta merkataritza-jardueren zuzkidura osagarri eta batuaren araubidea ezartzen du, lurralde antolamenduko planak onesteko kontuan hartu beharko diren irizpide orokorrak definitzerakoan.

Bestalde, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duenak, paradigma aldaketa ekarri eta jasangarritasun helburuak txertatzera behartu du hirigintzako planeamendu eta jarduketa guztietan. Helburua da sustatzea hiri trinkoaren eredia, lurraldearen ekoizpen ahalmena, sistema natura-

len egonkortasuna eta Nafarroako udalerrietako ingurumen eta hiri kalitatearen hobekuntza, mugikortasun eta hirigintza jasangarriak indartuz, biztanleek joan-etorri gutxiago egin behar ditzaten.

Arau horiek gorabehera, azken hamarkada hauetako errealitatea oso bestelakoa izan da. Udal planeamenduetan lurzoria okupatzeko eta txikizkako merkataritza-erabilerak antolatzeke ezarri den ereduaren ondorioz merkataritza gune mordoak kokatu da hiri bilbeetatik kanpo, bizitegitarako ez diren lurzorueta. Izan ere, horretarako bidea eman dute, batetik Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 19.6 artikuluan jasotako "egoitzaremia" termino juridiko lausoak, zeina, hirigintzan erreferentzia edo oinarria duen terminoa izanik ere, ez baita ageri lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Nafarroako antolamenduan; eta bestetik, ez aipatzeak bizitegi-erabileren eta merkataritza-jardueren zuzkidura osagarri eta batuaren araubidea bermatzeko betebeharririk udal planeamendu orokorretarako.

Hiri ingurunearen garapen jasangarri eta kohezionatua, hiri trinkoaren ereduaren aldekoa; merkataritza-jarduerak lurraldean ezartzean haien inpaktua murriztea, zehazki, mugikortasunaren, airearen kutsaduraren, energia kontsumoaren eta lurzoruaren okupazioaren esparruetan; mugikortasun jasangarria, biztanleen lekualdatze beharren murrizketa sustatzen duena, alferrikako joan-etorriak saihesteko; eta 17/2001 Foru Legeak berak jasotzen dituen printzipio gidariak eta merkataritza-establezimenduen ezarpenari buruzkoak; aurreko irizpide eta printzipio horiek ahalbidetzen dute lurralde eta gizarte kohesioaren eredu bat definitzea, herritarrek eta kontsumitzaileek hiri ingurumenerako eta hiri trinko eta bizigarrirako duten eskubideari ere lotua.

Irizpide, printzipio eta motibo horiek guztiak, lurralde antolamenduari eta ingurumenaren babesari buruzkoekin batera, interes orokorreko arrazoi ezinbestekoak dira. Hala adierazi dute Europar Batasuneko jurisprudentziak (EJAr 2011ko martxoaren 24ko epaia (C-400/08), 2010eko martxoaren 11koa (C-384/08), 2009ko urriaren 1eko (C-567/07) edo 2007ko irailekoa (C-260/04)) eta Espainiako Estatuko auzitegien jurisprudentziak (Konstituzio Auzitegiaren 157/2016 epaia, 2016ko irailaren 22koa; 73/2016 eta 193/2013 epaiak), zeinek aukera ematen baitute txikizkako merkataritza-erabileraren eta merkataritza-establezimenduen instalazioa edo ezarpena antolatzeke arauak ezartzeko, segurtasun juridikoren irizpideen arabera. Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, «merkataritza-establezimendu handien

kokapenari eta tamainari dagozkien murrizketek bitarteko egokiak dirudite lurralde antolamenduen eta ingurumenaren babesaren arloetako helburuak lortzeko». Neurriak proposatzen dira Foru Administrazioari legegintzako jardunaren ondorioz ondare erantzukizunik ez sortzeko, aintzat hartuz Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritako baldintzak (Auzitegi Gorenaren 2010eko uztailaren 23ko epaia, 2010eko otsailaren 24koa, 2009ko irailaren 29koa eta 2009ko ekainaren 17koa (154/2008, 1.863/2008, 5.734/2004 eta 944/2005 errek.).

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da lege aldaketa hauek sustatzea, adierazitako xedeak eta helburuak bete ahal izateko.

1. artikulua. Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzea.

Ba. 18.1 artikulua aldatzen da, eta hau da testu berria:

«1. Udal plan orokorrek, merkataritza-erabileraren antolamenduan, Lurraldearen Antolamenduari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea betetzeaz gain, foru lege honetan eta lurraldearen antolamenduko planetan ezarritako printzipioak eta irizpideak ere bete beharko dituzte. Bermatu beharko dute bizitegi-erabileren eta merkataritza-jardueren arteko zuzkidura-erlazio osagarria eta batua».

Bi. 19.6 artikulua aldatzen da, eta hau da testu berria:

«6. Merkataritza-establezimendu handiak, banakako nahiz multzokako establezimenduen tipologietan, bizitegi-erabilera berezkoa eta nagusia duten lurzoru urbanizagarri edo hiri lurzorueta soilik instalatu ahal izanen dira. Bizitegi-erabilera berezkoa eta nagusia duten lurzoru urbanizagarri edo hiri lurzortzat hartuko dira honako hauek: behar bezala mugatuta eta sartuta daudenak hirigintza-antolamendu eta -kudeaketako bizitegi-eremu batean, zeinak etxebizitza kolektibo jarraituko 250 etxebizitza edo 600 biztanle baititu, eta hektarea bakoitzeko 40 etxebizitzako bizitegi-dentsitatea, edo hala antolatuta baitago. Ezin dira ondorio horietarako kontuan hartu hirigintza-antolamendu eta -kudeaketako eremu baten baino gehiagoren ezaugarriak, bata bestetik hurbil badaude ere»

Hiru. Xedapen gehigarri bat sortzen da; hau da testua:

Xedapen gehigarria.

«Aldaketa horiek ez diete eraginen honako hauei:

– Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 19.5 artikulua- ren arabera merkataritza-establezimendu handiak ez diren establezimenduei (udal merkatuak, ibil- gailuen nahiz erregaien, makineria industrialaren, lorezaintzako gaien eta eraikuntza nahiz sanea- menduko gaien salmentakoak, eta mugaz harain- diko eremuetakoak).

– Edozein lurzoruri, baldin eta haren gain ondaretu badira merkataritza-establezimendu handi bat ezartzeko ahalmena ematen duten hirigintzako aprobetxamendu eta eraikigarritasu- nak, hirigintzako kudeaketarako tresna egokiak onetsita eta irmo bihurtuta; dagozkion hirigintza- zamak altxatu badira eta hirigintzako betebeharrak bete badira epean; eta dagozkion udalez gaindiko plan sektorialak garatzeko eta gauzatzeko epeak gainditu ez badira, plan horiek hirigintzakoak nahiz merkataritzakoak izan».

2. artikulua. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegin- tzako Foru Dekretua aldatzea.

Bat. 4. artikuluko e) letra aldatzen da; hau da testu berria:

«e) Hiri-ingurunearen kalitateari eutsi eta hura hobetzea, egokiro arautuz lurzoruaren erabilerak, ekipamendu publikoak, produkzio-jarduerak, merkataritzakoak –halako moldez non bermatuko baitute bizitegi-erabileren eta merkataritza- jardueren arteko zuzkidura-erlazio osagarria eta batua–, garraiokoak eta antzekoak, xede izanik aurrerapen ekonomiko eta sozial orekatu eta

jasangarria sustatzea, bizitegiatarako ingurune dibertsifikatu batean, eta biztanleak lan, kultura eta aisiarako ekipamendu eta tokietara berdinta- sun-baldintzetan iritsi ahal izatea ziurtatuz».

Bi. Xedapen gehigarri bat eransteke proposa- mena. Hona testua:

Xedapen gehigarria.

«Aldaketa horiek ez diete eraginen honako hauei:

– Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztai- laren 12ko 17/2001 Foru Legearen 19.5 artikulua- ren arabera merkataritza-establezimendu handiak ez diren establezimenduei (udal merkatuak, ibil- gailuen nahiz erregaien, makineria industrialaren, lorezaintzako gaien eta eraikuntza nahiz sanea- menduko gaien salmentakoak, eta mugaz harain- diko eremuetakoak).

– Edozein lurzoruri, baldin eta haren gain ondaretu badira merkataritza-establezimendu handi bat ezartzeko ahalmena ematen duten hirigintzako aprobetxamendu eta eraikigarritasu- nak, hirigintzako kudeaketarako tresna egokiak onetsita eta irmo bihurtuta; dagozkion hirigintza- zamak altxatu badira eta hirigintzako betebeharrak bete badira epean; eta dagozkion udalez gaindiko plan sektorialak garatzeko eta gauzatzeko epeak gainditu ez badira, plan horiek hirigintzakoak nahiz merkataritzakoak izan».

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe uzten dira aldaketa honetan eza- rritakoari aurka egiten dioten lege- zein erregela- mendu-mailako xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

10-23/PRO-00004. Foru Lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dien legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritako-ekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamena presako eta irakur-keta bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Biztanle kalteberenek alokairu ordainerraza eskura dezaten Nafarroako Foru Komunitateak duen mekanismo nagusia da etxebizitza-parke garrantzitsu bat izatea alokairu sistema publikoari lotua, dela errentamendu babestuko sustapenen bitartez, dela Alokairuen Poltsaren bitartez edota David, Emanzipa eta gisako programa osagarrien bitartez.

Errentamendu babestuko sustapenak, hala eki-men pribatukoak nola ekimen publikokoak, eredu beharrezkoak eta osagarriak dira. Errentamendu ordainerrazaren eskari gero eta handiagoko tes-tuinguruan aldi berean heldu behar zaie bi ere-duei.

Errentamendu pribatuko sustapenen kasu zehatzean, sektoreko ekimen berriak urritzen ari diren honetan neurriak hartu behar dira errenta-mendu babestuko egungo sustapenek, Foru Komunitatearen dirulaguntza jaso dutenek, alokai-ru sistema publikoarekiko lotura luza dezaten haien nahitaezko kalifikazio aldia bukatu ondoren ere.

Horrela, errentamendu babestuko araubidea luzaturik, etxebizitza horietako maizterrek errenta-mendu babestuaren onura izanen dute, eta diru-sarrera apalagoak dituzten biztanleek babes ofizia-leko etxebizitza errentan hartzeko dirulaguntzak eskuratu ahal izanen dituzte, eta horrenbestez errenta nabarmen txikiagoa ordaindu.

Helburu horri begira hiru neurri nagusi hartu nahi dira:

Lehenik, Etxebizitza buruzko Foru Legearen testuan argitzea zer ondorio ekarriko duen erren-tamendu babesturik ez kudeatzeak, babes aldia bukatu ez zaien sustapenen kasuan.

Bigarrenik, aukera ematea babes aldia bukatu zaien errentamendu babestuko sustapenak berriz atxiki ahal izateko alokairu publikoko sistemari, eta higiezin horiek zaharberritzeko laguntzak ematea, beharrezkoa bada.

Hirugarrenik, berariaz prozedura bat arautzea zeinaren bidez etxebizitza arloko departamentu eskudunak, aurrekontuko baliabideen arabera, etxebizitzak edo sustapenak erosi ahalko baititu alokairu ordainerrazera bideratzeko, Ondareari buruzko Foru Legeak emandako ahalmena baliatuz.

Artikulu bakarra. Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Bat. 11. artikuluari g) letra gehitzen zaio; hau da testua:

«g) Alokairu sistema publikoari lotutako etxebizitza-parke publikoa handitzea, etxebizitzak eskuratuz».

Bj. 52. artikuluari f) letra gehitzen zaio; hau da testua:

«f) Errentamendu babestuko sustapen gisa kalifikatu diren eta babes araubideko aldia oraindik bukatu ez zaien etxebizitzaren sustapenak alokairu sistema publikoari lotuta mantentzeko bete-beharrak ez betetzea».

Hiru. 66. artikuluari apartatu bat gehitzen zaio; hau da testua:

«8. Errentamendu babestuko kalifikazioa duten etxebizitzaren sustapenak alokairu sistema publikoari lotuta ez mantentzea haien babes araubideak dirauen bitartean».

Lau. Bigarren xedapen gehigarriaren testua aldatzen da; hau da testu berria:

«Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak eskuratutako etxebizitzak esleitzeko modua.

Foru lege honen 33. artikuluan eta hogeita hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera eskuratzen diren etxebizitzak eta Nafarroako Gobernuak, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz, lehentasunez erosteko eskubideak eta desjabetzeko ahalmena erabiliz eskuratzen dituenak administrazio publikoen etxebizitza arloko politiken ondorioz sortutako beharrei erantzunez esleitu dira. Helburu berari jarraituko zaio Alokairuen Poltsa kudeatzeko orduan».

Bost. Hamaseigarren xedapen gehigarriaren 4. eta 6. apartatuen testua aldatzen da; hau da testu berria:

«4. Baldin eta sustatzaileak, elkarteak edo sustapenaren eskuratzaile berriak errentamendu-araubidea edo erabilera-lagapeneko araubidea aldatzen badu etxebizitzak babes-araubideari loturik dirauen bitartean, etxebizitza arloan eskudun

den departamentuak horretarako baimenik eman gabe, jasotako kopuru guztiak itzuli beharko ditu, bai eta berandutze-interesak ere, dirulaguntza ordaindu den uneetatik hura itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera artekoak. Horrek ez ditu ezertan galaraziko bidezkoak diren bestelako zehapen-jarduketak batzuk eta legezkotasuna berrezartzeko bestelako ekintza batzuk».

«6. a) Erosteko aukerarik gabeko errentamendu-araubideko kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzak eta 60 urtetik gorakoentzako edo desgaitasuna dutenentzako alokairuko apartamentu babestuak sustatzen dituztenek edo haien jabeek birgaitze babestuagatiko dirulaguntza bat jasotzen ahalko dute, aurrekontu babesgarriaren % 80 artekoa, eta etxebizitza bakoitzeko 25.000 eurokoa gehienez, baldintza hauekin betiere:

– Etxebizitzek gutxienez 20 urteko antzinatasuna izatea.

– Eta sustatzaileak babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako baldintzekin erabili izana etxebizitzak errentamendurako, etenik gabe, eta konpromisoa har dezala horretara erabiltzeko, baldintza beretan, gutxienez beste 15 urtez, birgaitze babestuari buruzko espedientearen behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita, hala egin ezean baldintza horiekin jasotako dirulaguntza itzuli behar izatearen zigorpean.

b) Errentamendu araubideko kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak, beren babes araubideko aldia amaitutakoan alokairu sistema publikotik bereizi badira eta berriz ere sistema horri atxikitzeko eskatzen badiote Etxebizitza Departamentuari, birgaitze babesturako dirulaguntza jaso ahalko dute, aurrekontu babesgarriaren % 60ra artekoa eta etxebizitza bakoitzeko 25.000 eurokoa gehienez ere, baldin eta:

– Etxebizitzek gutxienez 20 urteko antzinatasuna badute.

– Konpromisoa hartzen badute etxebizitzak 15 urtez errentamendu babesturako erabiltzeko, birgaitze babestuaren espedientearen behin betiko kalifikazioaren datatik hasita, baldintza horiekin jasotako dirulaguntza itzuli behar izatearen zigorpean.

– Egiten diren obretan bermatu behar da Eraikinaren Ebaluazio Txostenak, Lehendik baden Eraikinaren Liburuaren zati denak, "Gai" emaitza lortuko duela, baita txosten hori nahitaez egin beharrekoa ez denean ere»

Sei. Hogeita laugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hau da testu berria:

«Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Kasu bereziak.

1. 2023ko urtarrilaren 1etik, eta dagokion erregelamenduaren garapena onesten ez den bitartean, dirulaguntza emanen da etxebizitza erabilia eskuratzeko 5.000 biztanle arteko udalerrietan, eta landa eremuko 20.000 biztanle arteko udalerrietan, bertako herrigune guztiak 5.000 biztanle artekoak badira, baldin eta eskuratzaille guztiak 35 urtetik beheitikoak badira eta babes ofizialeko etxebizitza berria eskuratzegatik dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen badituzte, salbu eta etxebizitza babestuko eskatzaileen erroldan alde aurretiazko inskripzioa egina izateari buruzkoa. Etxebizitzen eta eranskinen prezioak ez du gaudituko babes ofizialeko etxebizitza bigarrenez edo aldi gehiagotan eskualdatuta eskuratzeko ezarritako prezioa.

Dirulaguntzen onuradunek erositako etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabili beharko dute. Etxebizitzek bizigarritasun-zedula eduki beharko dute eta azalerari buruzko baldintzak, babes ofizialeko etxebizitzei aplikatzekoak direnak, bete, eranskinei dagozkien mugak izan ezik.

Emandako dirulaguntzen baldintzak eta portzentajeak izanen dira babes ofizialeko etxebizitza berriak eskuratzeko dauden berberak, baina bakarrik etxebizitzaren salmentaren prezioari aplikatuta, eranskinik gabe. Salerosketa-kontratuaren alde aurreko ikus-onetsi administratiboa eskatuko da, eta dirulaguntza ordainduko da interesduinak alde aurretik eskatuta, hura eman eta gehienez ere 6 hilabeteko epean, etxebizitzaren eskuraketaren eskritura publikoa.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoari jarraikiz dirulaguntzak ematea baimenduko da, eskuratzaille adina edo etxebizitza dagoen udalerria edozein dela ere, babes ofizialeko etxebizitzak, errentamenduaren edo erosketa-aukeradun errentamenduaren kalifikazioarekin eta haien babes araubidea amaitu denean, indarra duen errentamendu babestuaren azken kontratuaren titularrek eskuratzen badituzte.

Kasu honetan ez da kanpoan utziko eranskinen azalera ez gehieneko salmenta prezioa kalkulatzeko ez erosleentzako dirulaguntza kalkulatzeko, eta kontuan hartuko dira etxebizitza babestuaren kalifikazioaren dokumentuan jasotako azalera.

3. Aurreko bi apartatuei jarraikiz eskuratu eta diruz lagundutako etxebizitzei aplikatuko zaie foru

lege honen bosgarren artikuluan jasotzen den laguntza ekonomikoaren xede den jarduketa babesgarri orori aplikatu beharreko denborazko baldintza, 10 urteko aldirako, kontatzen hasiko dena etxebizitza erosteko eskritura publikoa ematen den egunetik. Dirulaguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izanen da aurreko baldintza agertzea aipatutako eskrituran».

Zazpi. Hogeita hamargarren xedapen gehigarria eransten da, testu honekin:

«Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Etxebizitzak eskuratzeko eta kudeatzea.

1. Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak etxebizitzak eskuratzeko eta kudeatzeko ahalmena baliatuko du errentamendu araubideko etxebizitza ordainerrazen eskaria asetzeko.

2. Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak etxebizitzak eskuratu ahalko ditu lehiaketa publikoaren bidez edo zuzenean Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak aurreikusitako kasuetan, eta arau horrek ezarritako prozedurei jarraikiz.

3. Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak etxebizitzak eskuratzeko ordainduko duen gehieneko prezioa bat etorriko da babes ofizialeko etxebizitzak bigarren eskualdaketa eta hurrengoetan adjudikatzeko edo saltzeko gehieneko prezioekin.

4. Errentamendu babestuko kalifikazioa dutelarik babes araubideko aldia bukatu zaien eta errentamendu babestuko kontratu ikus-onetsiak dituzten sustapenak eskuratu dira, lehentasunez.

5. Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak funtsak eskualdatu ahalko dizkio sozietate instrumental edo erakunde publiko bati, hark eskuratu, ustiatu eta kudeatu ditzan etxebizitzak.

6. Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak zuzenean nahiz sozietate instrumental edo erakunde publiko baten bitartez eskuratu ahalko ditu etxebizitzak, eta sozietate edo erakunde horrek ustiatu eta kudeatuko ditu.

7. Sozietate instrumental edo erakunde publiko batek xedapen honetan oinarrituta atxiki dizkieten higiezinetatik lortzen dituen diru-sarrerak higiezin horiek kudeatu eta mantentzeko erabiliko dira, eta haiek zaharberitzeko, behar izanez gero, edo Nafarroako errentamendu babestuko etxebizitza-parke publikoa handitzeko».

Zortzi. Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria eranstean da, testu honekin:

«Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Errentamendu sistema publikoari berriz lotzea.

Errentamendu babesturako kalifikatutako sustapen batek, bere babes aldia amaituta, ez badu epean eta behar bezala izapidetu 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrari edo 10/2010 Foru Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarriari heltzeko eskaerarik, eskatu ahal du aplikatzekoa zaion xedapenari heltzeko, baldin eta, sustapena xedapen horretan ezarritako baldintzekin kudeatzeko konpromisoaz gainera, agiri hauek aurkezten baditu eskaerarekin batera:

– Etxebizitzaren okupazio egoerari buruzko txosten zehatza, errentamendu kontratu indardunak barne hartzen dituena.

– Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua, barne hartzen duena Eraikinaren Ebaluazio Txostena "Gai" emaitzarekin, higiezinaren antzintasuna gorabehera.

– Eraikinaren Ebaluazio Txosteneko emaitza "Gai" ez bada, sustatzaileak birgaitze babestuaren espedientea izapidetu ahal du.

Dokumentazioa ebaluatu ondoren, etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak ebatzi ahal du sustapena berriz sar dadila alokairu sis-

tema publikoan. Ebazpenak ondorioak sortuko ditu Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak bera ematen duen egunetik, edo, birgaitze jarduketak egin behar badira, izapidetutako birgaitze espedientearen behin betiko kalifikazioa lortzen den egunetik.

«Une horretatik aurrera, etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak dirulaguntza eman ahal du etxebizitzetako uneko maizterrei edo maizter berriei, arau honetako determinazioetan oinarrituta».

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduak egiteko gaikuntza.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta etxebizitza arloko eskumena duen kontseilariari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean.

10-23/PRO-00005. Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dien legegintzarako ekimena erabi-liz, Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKI DA:

1. Agintzea Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposa-mena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148 artiku-luan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru lege proposamen hori irakurketa baka-rreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

HITZAURREA

Ehiza ezinbesteko tresna da zenbait espezie-ren populazioak kontrolatzeko: batetik basa un-txiarena (gaur egun ehiza-espezie horrek eragiten du kalte eta galera gehien Foru Komunitatean, bai bere elikaduragatik eta nekazaritzan duen eragi-nagatik, bai azpiegiturak ukitzen dituzten untxi

zuloengatik), eta bestetik basurdearena (ehiza-espezie horren desorekak, nekazaritzako kalteez gain, trafiko istripu larriak, abeltzaintzari eta osa-sun publikoari erasaten dieten ekopatologiak eta biodibertsitatearen gaineko inpaktua ere sortzen ditu).

Nafarroako Ehiza Federazioak eta Gaztela-Mantxako Unibertsitateak duela gutxi egindako txosten tekniko batean kalkulatu denez, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeak ehiza-txakur eta hudoak eduki ahal izateko ezarritako bete-behar berriei lotuta, ehuneko 75 murriztuko da azken horien erabilera untxi populazioak kontrolatzeko jardueran. Horrek ekarriko du modu esponen-tzialean haztea basa untxien populazioa eta, horrenbestez, baita untziek laboreetan, bazkale-kuetan, ureztatze azpiegituretan, komunikazio bideetan eta abarretan eragindako kalteak ere. Egun milioika eurokoak dira, eta urtez urteko haz-kunde jasanezina izanen dute.

Era berean, ehiza-txakurrei eta basurdeari buruz berriazko txosten bat egiten ari da, eta, hark dioenez, txakurrak agente nagusiak diren modalitateetako ehiza bertan behera utziz gero, ehuneko 350 haziko da Nafarroako basurde popu-lazioa, eta ehuneko 150 animalia horiek eraginda-ko trafiko istripuak.

Hilabete gutxiren buruan errealitateak zenba-tespen horiek gainditu ditu, Foru Komunitatean hudoaren bidezko ehiza gehiena bertan behera gelditu ondoren, 19/2019 Foru Legearen garapena onesten duen urriaren 26ko 94/2022 Foru Dekre-tua argitaratu eta gero. Ondorioz, areagotu egin dira bi ehiza-espezieek sortutako kalteak eta gale-rak.

Ez dugu ahaztu behar kalte ekonomikoez gain bestelako ondorioak ere sortzen dituztela, hala nola gatazka sozial handiak gure herrietan, nekazaritzako ustategien azkena, landa eremuen despopulazioa eta abandonua eta abarrekoak.

Aurrekoaren osagarri, bereziki azpimarratu behar da auzoko autonomia erkidegoetan, Ara-goin, EAEn eta Errioxan, esaterako, basa faunak deskribatutakoen antzeko arazoak sortzen dizkiela baina ez dutela hudoak identifikatzera edo txertatzera behartzen, nazioarteko mugimenduak egin behar dituztenak salbu. Gainera, araudi jasangarriagoa dute, ehiza-txakurren edukitze

arduratsurako aplikazioari dagokionez. Arrazoi nagusietako bat da onura publikokotzat jotzen direla ehizarako funtsezkoak diren animalia horiek.

Hori bidegabekeria konparatiboa da hudoen eta ehiza-txakurren Nafarroako jabeen kalterako. Adibidez, Errioxako hudo jabe batek Nafarroan ehizan jardun lezake foru araudiaren murrizketak bete gabe, animalia bizi den lurraldeko legeria aplikatu behar baita.

1. artikulua. Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen 8. artikulua 2. apartatuari bigarren paragrafoa gehitzen zaio; testu hau izanen du:

"Gaitasun nagusia ehiza duten eta beste herrialde batzuetara mugitzen ez diren hudoen kasuan, identifikazioa eta errabiaren kontrako txertoa borondatezkoak izanen dira".

2. artikulua. Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen 10. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

"2. Animalien tratamenduak eta txertatzeak, bai eta nahitaezkoak diren azterketa sanitarioak eta

haien aldizkakotasuna ere, erregelamenduz ezarriko dira, txertoen zehaztapen teknikoek adierazten dutenaren arabera, bai lehen txertaldirako, baita birtxertatzeetarako ere.

Txakur eta katuen kasuan, errabiaren kontrako txertoa nahitaezkoa denez, nahitaezkoa izanen da txertoa jarri baino lehen albatari-bisita egitea osasun-kontrol baterako, zeina dokumentu bidez egiaztatuko baita animalia pasaportearen txertoaren zigilua jarriz eta egoera orokorrari buruzko txostenaren bidez".

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak, eta, zehazki, Lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen garapena onesten duen urriaren 26ko 94/2022 Foru Dekretuan jaso diren xedapenetatik, foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten diotenak.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar munean hartuko du indarra.

10-23/PRO-00006. Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Komunitateak bereganatutako eskumenak baliatuz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudea-

ketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea onetsi zuen, babes zibileko eta larrialdien kudeaketaren inguruko jarduketak arautzeko Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, baina deusetan galarazi gabe interes nazionalako larrialditzat jotzen diren egoerak arautzeko Espainiako arauak xedatzen dutena eta, halakorik izanez gero, aplikatzekoa den Europako araudiak xedatzen duena.

Geroago otsailaren 28ko 8/2019 Foru Legea onetsi zen, aipatu 8/2005 Foru Legea aldatzeko, arriskuen, baliabideen eta legeriaren bilakaeran oinarrituta.

Baina esperientziak erakusten du aldaketa gehiago egin behar zaizkiola, larrialdietako laguntzaren eta kudeaketaren egungo egoerara egokitze aldera.

Halaber, prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzu publikoen bilakaerak eraginda, lehenbiziko aldiz aldaketak egin behar dira 8/2005 Foru Legearen IV. tituluan, Foru Komunitateko administrazio publikoek ematen dituzten prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuei buruzkoan.

Artikulu bakarra. Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea honela aldatuta geldituko da:

Bat. 2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Foru lege honi dagokionez, honako definizioak hartuko dira aintzat:

Galzoria: babes zibilak zaindu beharreko pertsona-taldee edo ondasun-multzoei egoera jakin batzuetan kaltea egiteko ahalmena.

Zaugarritasuna: pertsona-talde edo ondasun-multzo baten ezaugarria, inguruabar jakin batzuetan galzoriaren eragina neurri handiago edo txikiagoan jasateko moduan egotea dakarkiena.

Mehatxua: babes zibilak zaindutako pertsonak eta ondasunek duten egoera, zeinean berehalako edo ezkutuko galzori baten aitzinean baitaude neurri handiago edo txikiagoan.

Arriskua: mehatxu bat pertsona-talde edo ondasun-multzo bat ukitzera iristeko aukera.

Larrialdia: bat-batean sortzen den egoera, ondasunen nahiz pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa arrisku handian jartzen dituen edo erasotak gertatzen direnekoa, eta berehalako neurriak hartzea eskatzen duena, arriskua bertan behera uzteko edo kalteak minimizatzeke. Arruntak nahiz apartekoak izan daitezke.

Aparteko larrialdia: bat-bateko arrisku kolektiboko egoera, pertsonak edo ondasunak berehalako galzorian jartzen dituen gertaera baten ondoriozkoa eta botere publikoen aldetik horiek artatzeko, kalteak arintzeko eta katastrofe bihurtadain ekiditen saiatzeko kudeaketa azkarra exijitzen duena.

Larrialdi arruntetik bereizten da azken honek ez duelako eragin kolektiborik.

Katastrofea: biktima, kalte eta inpaktu material ugari eragiteagatik erkidego edo gizarte baten funtzionamendua substantzialki asaldatzen edo eteten duen egoera edo gertakari bat, artatze-baliabide gehiago eskatzen dituen erkidegoak berak eskuragarri dauzkanak baino.

Oinarrizko zerbitzuak: beharrezkoak direnak oinarrizko eginkizun sozialak, osasuna, segurtasuna eta herritarren ongizate sozial eta ekonomikoa edo administrazio publikoen funtzionamendu eraginkorra mantentzeko.

Zoritar publikoa: biztanleengan eragin orokorra duen katastrofea.

Larrialdietako laguntza: pertsonen bizia eta osotasun fisikoa babestea helburu duten jarduketak urgenteak, baita ondasunak eta ingurumena zaintzekoak ere, gizakiak nahiz naturak eragindako larrialdiak gertatzen direnean.

Alerta: galzori edo arrisku garrantzitsu baten gertagarritasunaz ohartarazteko abisua edo deia.

Alarma: hurbil-hurbileko galzori ziur batez ohartarazten duen seinalea.

Arriskuen mapa: dokumentu kartografiko ofiziala, autonomia erkidegoko garrantzizko arriskuak seinalatzen, deskribatzen, sailkatzen eta kokatzen dituen eta arrisku bakoitza lurraldeko zein zonan dagoen zehazten duena.

Urgentzia: lekuren edo jardueraren batean norbaiti ustekabearen arazo bat gertatzea berehalako laguntza premiaren kontzientzia sortzen diona, arazoaren kausa eta larritasun maila gorabehera”.

Bj. 3. artikuluan e) apartatua aldatzen da eta i) eta j) apartatuak gehitzen dira; testua honela geldituko da:

“e) Ezbeharra sortzen duten zergatietan batera eta berehala esku hartzea, haiek deuseztatzeke, hedadura eta ondorioak murrizteke eta herritarrak babesteko eta sorosteko.

i) Behar diren ikuskapen lan guztiak egitea babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko araudi indarduna betetzen dela egiaztatzeke.

j) Herritarrek eta babes zibileko boluntarioen erakundeek parte har dezaten sustatzea”.

Hiru. 4. artikuluar 4. apartatua gehitzen zaio eta testu hau izanen du:

“Nafarroako administrazio publikoek, beren eginkizunak betetzean, arreta berezia jarriko diete pertsona eta kolektibo zaurgarrienei”.

Lau. 9. artikuluar 5. apartatua gehitzen zaio eta testu hau izanen du:

“Babes zibileko planak etengabe eguneratuta egon behar dira eta egokituta haien egituran edo operatibitatean gerta daitezkeen aldaketetara, bai eta haiek ezartzeko prozesuan lortutako emaitzen arabera edota haien denbora-aktibazioaren edota esperientziaren arabera ere”.

Bost. 22. artikuluar 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“Larrialdi bat hain handia denean edo halako hedadura hartzen duenean non erantzuteko ahalbideak gainditzen dituen, Nafarroako Gobernuak katastrofetzat har dezake, babes zibilaren arloko eskumenak dituen departamentuko titularrak proposaturik”.

Sei. 26. artikuluar 2. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“Babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari eginkizun hauek dagozkie:

Nafarroako Gobernuari aurkeztea Nafarroako babes zibileko lurralde plana, larrialdietako plan berezi eta berariazkoak eta babes zibilaren arloan beharrezkoak diren gainerako xedapen orokorrak, onets ditzan.

Nafarroako babes zibileko lurralde planean eta larrialdietako plan berezi eta berariazkoetan finkatzen diren zuzendaritza lanak bere gain hartzea, salbu eta 22. artikuluan aurreikusi den egoeran.

Nafarroako Gobernuari proposatzea katastrofe egoera deklaratu dezala.

Nafarroako Babes Zibileko Batzordeko buruzatea.

Larrialdiak kudeatzeko zentroaren protokolo operatiboak onestea.

Zehapen ahalmena erabiltzea, foru lege hone-tan ezarritako moduan.

Indarreko arauak esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak”.

Zazpi. 27. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“2. Babes zibilaren arloko agintari gorena udal-lerrian alkatetza daukan pertsona da eta, horrenbestez, hari dagokio udal plana abian jar dadila agintzea eta, kasua denean, hartan ezarritako zuzendaritza eta koordinazio lanak bere gain hartzea, plana geldiaraztea, beste administrazio publiko batzuen baliabideak eskatzea eta gorago-ko plan bat abian jar dezatela eskatzea”.

Zortzi. 28. artikulua 2. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“2. Udalez gaindiko entitateko buruak aurreko artikuluan alkatetza daukan pertsonaren esku uzten diren eginkizunak beteko ditu, bere lurralde esparruan eta udalez gaindiko planen arabera”.

Bederatzi. 34. artikulua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“Babes zibileko boluntarioek larrialdiak kudeatzen lagundu ahal izanen dute, gizarteak gertakari horiei emandako erantzunaren erakusgarri, aplikatzeak diren arauetan ezarritakoarekin bat eta herritarrek laguntzeko duten betebeharrak orokorra ezertan ere galarazi gabe.

Babes zibileko boluntarioak adin nagusiko pertsonak dira, beren borondatez eta ez irabazi pertsonalik ez korporatiborik lortzeko asmorik gabe entitate batean sartzen direnak, administrazio publiko eskudunek esleitzen dizkieten babes zibileko ohiko eginkizunak garatu ahal izateko erakunde horretan.

Boluntarioek babes zibilaren esparruan egindako jarduerak boluntario horiek sartuta dauden entitateen bidez egiten dira, boluntario-lanari buruzko araubide juridikoarekin eta boluntario-lanak azpian daukan balioekin eta printzipioekin bat, eta haien jarraibideei lotuz, eta horien laguntza ez da inolaz ere gauzatuko administrazio jardulearekiko lanharreman baten bidez.

Boluntarioek babes zibilaren arloan egindako jarduerak laguntza ematekoak eta larrialdietako zerbitzu publikoen mendekoak izanen dira beti, eta haien zuzendaritzapean jardunen dute soilik.

Foru Komunitateko Administrazioak eta udalek larrialdietarako boluntarioen taldeen ekimenak bideratuko dituzte, babes zibilaren arloan egiten duten lanari buruzko informazioa eman eta zabal-

tzeko eta boluntarioen lana goresteko kanpainak eginez eta boluntarioei prestakuntza eta laguntza teknikoak emanez.

Babes zibileko boluntarioen elkarteek Boluntarioei buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legean ezarritakoari segituko diote, eta izena eman beharko dute babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuari atxikitako erregistro errege-lamenduz zehaztuan.

Babes zibileko boluntarioen elkarten erregistroan izena emateko, beharrezkoa izanen da aurretiaz Foru Komunitateko Administrazioarekiko lankidetzak-hitzarmen bat sinatzea. Erregelamendu bidez ezarriko da hitzarmen horien edukia, zeinak honako hauek jasoko baititu gutxienez ere: bere baliabideak haren eskura jartzea; laguntzeko eta parte hartzeko modua eta halako kasuetan legozkiekeen kalte-ordainak, eta entitate horien giza baliabideen heziketa kreditatua.

Boluntario-laneko elkarte bateko eskubide osoko boluntario gisa babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloan prebentzio- eta operazio-lanetan parte hartzeko beharrezkoa izanen da babes zibilaren eta larrialdien arloko departamentu eskudunak emandako kreditazioa edukitzea; horretarako, beharrezkoa izanen da erregelamendu bidez ezartzen diren curriculum-gaitasunak edukitzea lan horiek egiteko.

Boluntarioen talde eta erakundeetako kide diren boluntarioek aseguru bat izanen dute, kasuan kasuko erakundearen kargura, eginkizunak betetzeak dakartzan istripu arriskua eta erantzukizun zibila bere gain hartuko dituenak”.

Hamar. 39. bis artikulua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“Honako hauek dira babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak:

Babes Zibileko Zerbitzua eta Larrialdien Kudeaketarako Zentroa.

Ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuak, ospitale-eto larrialdi zerbitzuak eta oinarriko osasun laguntzakoak, ospitale eta osasun etxe publikoak eta osasun-garraio publikoak edo itunduak, bai eta osasun publikoko zerbitzuak ere.

Nafarroako administrazio publikoetako prebentzio, su-itxaltze eta salbamendu zerbitzuak.

Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako toki entitateetako polizia.

Errepide-mantenimenduko eta herri-lanetako zerbitzuak, eta basozaintzako eta ingurumenaren babeseko langileak.

Gizarte zerbitzuak.

Estatuko segurtasun kidego eta indarrak, eta larrialdien kudeaketa xede duten Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Babes zibileko boluntarioen elkarteek eta toki entitateen mende dauden suhiltzaile boluntarioek zerbitzu publikoen mende jardunen dute.

Telekomunikazioen, uraren, gasaren eta argindarraren sareen hornidura, mantentze eta zainketa zerbitzuak, eta oinarrizko zerbitzuen beste hornitzaile batzuk”.

Hamaika. 40. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak larrialdietako deiei erantzuteko zerbitzu publikoa emanen du larrialdietarako Europako 112 telefono zenbaki bakarraren bidez edo Europako legedian finkatzen den beste baten bidez”.

Hamabi. 41. bis artikulua a) apartatua aldatzen da eta f), g) eta h) apartatuak gehitzen dira; testua honela geldituko da:

“a) Larrialdietako deiak hartzeko zerbitzua ematea larrialdietarako Europako 112 telefono zenbaki bakarraren bidez.

f) Alerta eta larrialdi egoerak kudeatzea eta koordinatzea.

g) Ariketa eta simulakroetan eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako prebentzio-jarduketetan parte hartzea.

h) Edozein motatako larrialdi batean babes zibileko plana aktibatu ondoren planaren zuzendaria esleitzen dizkion eginkizun guztiak”.

Hamahiru. 42. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

1. Administrazio publikoek eta, zuzenean edo zeharka, larrialdietan laguntza emateko jardueretan aritzen diren erakunde publiko eta pribatuak Larrialdiak Kudeatzeko Zentroari jakinarazi behar diote Nafarroako Foru Komunitatean babes zibileko larrialdi bati bidea eman diezaiokeen edozein inguruabar edo egoera, eta zentro horretako langile eta agintariei lagundu behar diote”.

Hamalau. 45. artikulua 2. apartatuko a) letra aldatzen da eta testu hau izanen du:

“a) Suteen prebentzio eta itzaltzearen inguruko jarduerak, eta mota guztietako ezbehar eta arrisku egoeretan pertsona eta ondasunen babesa, bilaketa eta salbamendua”.

Hamabost. 53. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“Su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetan lanpostu hauek izanen dira, eta kasu bakoitzean ezarritako eginkizun orokorrak izanen dituzte:

Suhiltzaile-ofiziala, A mailakoa. Zerbitzuaren unitate tekniko eta operatiboen zuzendaritza eta koordinazio eginkizunak dagozkio, bai eta goi mailako eginkizun teknikoak ere prebentzioaren, ikuskaritzaren, su-itzaltzearen eta salbamenduaran arloan.

Suhiltzaile-ofizialordea, B mailakoa. Zerbitzuaren unitate tekniko eta operatiboen zuzendaritza eta koordinazio eginkizunak dagozkio, bai eta erdi mailako eginkizun teknikoak ere prebentzioaren, ikuskaritzaren, su-itzaltzearen eta salbamenduaran arloan

Suhiltzaile-kaboa, C mailakoa. Zerbitzuaren unitate operatiboen ikuskaritza eta aginte eginkizunak dagozkio, goiko agintedunen zuzendaritzapean.

Suhiltzailea, C mailakoa. Esku-hartze operatiboko eginkizunak eta betetze-eginkizunak dagozkio, goiko agintedunen zuzendaritzapean.

Suhiltzaile-gidari laguntzailea, D mailakoa. Bere mailako eginkizunak dagozkio.

Suhiltzaile-peoi laguntzailea, D mailakoa. Bere mailako eginkizunak dagozkio”.

Hamasei. 54. artikulua aldatzen da eta testu hau izanen du:

Suhiltzaileen lanpostu hutsak funtzio publikoan sartzeko deialdi publikoa eginda beteko dira, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez. Hautaprobentzen artean, betiere, Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da, zeinean Hezkuntza Departamentuak berariazko deialdia egingen baitu Osasun Larrialdietako teknikariaren lanbide heziketako titulua lortzeko probetarako. Suhiltzaileen Oinarrizko Prestakuntza Ikastarorako onartutako izangaiek proba horiek gainditu behar dituzte. Ikastaroak dirauen bitartean izangaiek praktiketako funtzionarioak izanen dira.

Hautaprobentzarako onartuak izateko, izangaiek C mailara sartzeko eskatzen den titulazioa eduki behar dute.

Suhiltzaile-kaboen lanpostu hutsak goragoko kategoriara igotzeko lehiaketa bidez beteko dira, Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaileen artean. Lehiaketan, Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat

egonen da. Goragoko kategoriara igotzeko lehiketa horretan parte hartzeko baldintza izanen da suhiltzaile gisa hiru urteko zerbitzuak egiaz eman direla frogatzea eta C mailara sartzeko eskatzen den titulazioa edukitzea.”

Suhiltzaile-ofizialordeen lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira; oposizio-lehiaketan, Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Igoera txandan parte hartzen ahalko dute suhiltzaile-kaboeak, baldin eta frogatzen badute kabo gisa hiru urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela, eta B mailara sartzeko eskatzen den titulazioa badute.

Suhiltzaile-ofizialen lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira; oposizio-lehiaketan, Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaile-ofizialordeek parte hartzen ahalko dute oposizio-lehiaketa murriztuan, baldin eta frogatzen badute ofizialorde lanpostuan bost urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela eta erregelamenduz ezarritako titulua, unibertsitateko goi mailakoa, badute. Horren ondotik ateratzen diren lanpostu hutsak txanda irekiko oposizio-lehiaketaren bidez beteko dira.

Aurreko ataletan aipatzen diren sarrera eta igotze prozedurak ebatzi aitzin, dauden lanpostu hutsak Nafarroako edozein administrazio publikotan lanpostu berdina betetzen dituzten funtzionarioen arteko lekualdatze lehiaketara aterako dira.

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetako lanpostuak betetzeko ezartzen diren proba fisikoetan genero-berdintasuna zaintzeko neurri egokiak hartuko dira”.

Hamazazpi. - 55. artikuluan 1. eta 3. apartatuak aldatu eta 4. apartatua gehitzen da, eta testu hau izanen dute:

“1.- Suhiltzaileen edo suhiltzaile-kaboen lanpostuetan aritzen diren funtzionarioek 55 urte betetakoan destino hauetako bat aukeratzeko ahalko dute:

a) Lanpostu berean gelditzea 60 urte bete arte. Horretarako, osasun azterketa eta gaitasun fisiko probak gainditu beharko dituzte urtero, lanpostuan aritzeko behar diren baldintzak dituztela frogatzeko.

b) Dauden zerbitzu berean bigarren jarduerako lanpostu batera pasatzea (zerbitzu osagarriak). Horrelako lanpostuak izanen dira laguntzarako edo prestakuntzarako jarduerak edo jarduerak osagarriak egitekoak, langile bakoitzaren ahalmenaren arabera, hau da, lanbide honetan aritu diren denboran ikasitakoa eta bizitakoa garatzeko

aukera ematen dutenak, baina ezbeharretan zuzenean parte hartu gabe. Hori ezinezkoa baldin bada, dela bigarren jarduerako lanposturik ez dagoelako, dela langilea horretan aritzeko gaitua ez dagoelako, bere mailari eta titulazioari dagokien administrazio publiko bereko beste lanpostu batean zerbitzu osagarriak egitera pasatzen ahalko dira; erregelamenduz ezarritako lanpostu aldaketa horiek egiteko prozedura eta lanpostu horietan aritzeko baldintzak”.

“3.- Bigarren jarduerako lanpostu batean ari direnek ezin izanen dute aurreko artikuluan gora egiteko ezarritako prozeduretan parte hartu, ez eta horiei lotutako lekualdatze lehiaketetan ere”.

“4.- Behin 55 urte bete ondoren zerbitzu operatiboan jarraitzen duten langileek denbora-ordaina jasotzeko eskubidea izanen dute erregelamenduz ezarritakoaren arabera”.

Hemezortzi. 63. artikulua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“Zehatzeko ahalmena udalei eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokie, artikulua honetan ezarritako moduan, arau-haustetza jotzen den jokabideak planaren zer arlo ukitzen duen, horren arabera.

Arau-hauste arin eta larriak zehatzea alkateari dagokio, salbu eta, arau-hauste larrien kasuan, isunaren zenbatekoa dela-eta, babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari badagokio. Arau-hauste oso larriak zehatzea, isunaren zenbatekoaren arabera, babes zibilaren arloko kontseilari eskudunari edo Nafarroako Gobernuari dagokio.

Babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak, ikuskapenak egiteko dagokion ahalmena erabiliz, uste badu alkateak zehatu beharreko arau-hausteren bat egin dela, haren berri emanen dio, behar bezala joka dezan. Hila-beteko epean alkateak ez baditu behar bezalako zehapen jarduketak egiten, eskumen hori babes zibilaren arloan eskumena duen kontseilariak hartuko du bere gain.

Isunak jartzeko eskumena honako agintari hauek izanen dute, isunen zenbatekoaren arabera:

Alkateak, 30.000 euro bitartekoak.

Babes zibilaren arloko eskumenak dituen departamentuko titularrak, 600.000 euro bitartekoak.

Nafarroako Gobernuak, 2.000.000 euro bitartekoak”.

Xedapen iragankor bakarra. Suhiltzaile-sarjentu lanpostuetan ari diren langileen egoera

1.- Suhiltzaile-sarjentuen lanpostuak, B mailakoak, "iraungi beharreko" lanpostutzat joko dira plantilla organikoan.

Iraungi arte, suhiltzaile-sarjentu lanpostuetan ari diren langileek dagozkien eskubide eta betebeharrak guztiak atxikiko dituzte eta egun esleituak dituzten eginkizunak beteko dituzte.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren uztailaren 31ko 102/2018 Foru Aginduak –zeinaren bidez Uretako Erreskate Taldea Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren egituran txertatzen baita, eta Erreskate Teknikorako Taldea sortzen– suhiltzaile-sarjentu

lanpostuaz egiten dituen aipamen guztiak suhiltzaile-ofizialorde lanpostuaren aipamentzat hartu behar dira.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten da azaroaren 20ko 82/2006 Foru Dekretuaren 1. artikulua. Dekretu horrek zehazten ditu Nafarroako administrazio publikoen prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetan suhiltzaileen sarjentu eta ofizial lanpostuetan sartzeko eskatu behar diren tituluak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00007. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen dira koordinatu daitezen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2023ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen dira koordinatu daitezen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria betez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen ditu koordinatu daitezen eta ezkaratzaren lagapena bete ahal izateko behar diren neurriak adostu ditzaten, ahalik eta lasterren behin betiko irtenbide bat emateko Alde Zaharreko osasun-etxearen irisgarritasun-arazoari".

Iruñean, 2023ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/DEC-00005. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Turkian eta Sirian izandako lurrikara suntsitzaileak kaltetutako pertsona guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die Turkian eta Sirian izandako lurrikara suntsitzaileak kaltetutako pertsona guztiei eta dei egiten die nazioarteko erakunde, gobernu eta erakundeei larrialdi hau gainditzeko lagundu dezaten eta berreraikuntzan laguntzeko konpromisoa har dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak premiaz mobiliza ditzan erabilgarri dituen laguntza eta elkartasun-baliabideak eta lurrikarak kaltetutako eremuetan ezarpena duten erakundeen esku jar ditzan".

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-23/POR-00068. Galdera, Ekonomia Sozialaren mugaz gaindiko I. Plan Integralari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia Sozialaren mugaz gaindiko I. Plan Integralari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak bultzatuta, Ekonomia Sozialaren mugaz gaindiko I. Plan Integrala sinatu berri dute Nafarroak eta Akitania Berriak. Hori dela-eta, honako hau galdetu nahi diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari:

Departamentuak zer helburu bete nahi du mugaz gaindiko plan horrekin? Zertan eraginen die Nafarroan ekonomia sozialaren esparrua osatzen duten "familia" ezberdinei?

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-23/POR-00069. Galdera, Iruñeko aireportuko zerbitzua hobetzeko neurri buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko aireportuko zerbitzua hobetzeko neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Zer neurri hartu du edota hartu nahi du kontseilariak Iruñeko aireportuak gure erkidegoaren interes orokorrei, bertako biztanleei eta erakunde-ei ematen dien zerbitzua hobetzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

10-23/POR-00070. Galdera, enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune espezifiko berria abian jartzeko datari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune espezifiko berria abian jartzeko datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Eskubide Sozialetako kontseilariari, Batzordean erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako kontseilariak honako erantzun hau eman zuen 2023ko otsailaren 6an "noiz abiarazi zen enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune espezifiko berria" galdetu zitzaionean (10-22/PES-00614):

"Informazio hori jada eman zaio parlamentari horri, 10-22/PEI-00839 zenbakiko informazio-eskaerari emandako erantzunean".

Oso erraz egiaztatzen ahal da informazio-eskaera horretan emandako dokumentazioan ez zaiola galdera horri erantzuten. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diot Eskubide Sozialetako kontseilari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Noiz abiarazi zen enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei eta abarri kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta eza-gutarazteko webgune espezifiko berria?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/PES-00053. Galdera, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamenaren tramitazioan ageri den kodeari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamenaren tramitazioan ageri den kodeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamenerako dokumentazioaren arabera, egilearen kodea x045139 da.

Zergatik ageri da kode hori proposamenaren tramitazioan? Kode hori Nafarroako Gobernuko langile bati al dagokio? Hala baldin bada: Zer departamentutakoa eta ataletakoa da?

Iruñean, 2023ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-23/PES-00054. Galdera, banku-entitateei, batez ere landa eremuan, arreta presentzialerako pizgarriak ematera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkezturiko galdera, banku-entitateei, batez ere landa eremuan, arreta presentzialerako pizgarriak ematera premiatzen duen mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, idatziz erantzun dezan:

2022ko irailaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamenta-

riok aurkeztutako mozio bat onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak, honako hau eskatzen zuena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, arreta presentzialerako, batez ere landa eremuan, pizgarriak eman diezazkien gure erkidegoan lan egiten duten banku-entitateei, finantza-zerbitzuen kontratazio publikoan klausula sozialak erabiliz.

– Nafarroako Gobernuak zer egin du harrezkeror eskaera hori betetzeko? Egindako guztiaren xehetasunak, bai eta mozioa onetsi zenez geroztik finantza-zerbitzuen kontratazio publikoan sartu diren klausula sozial guztiak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, banku-entitateekiko lankidetzaren formulak garatu ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera, herritarrengandik gertuago dauden finantza-zerbitzuak ematea errazteko.

– Nafarroako Gobernuak zer egin du harrezkeror eskaera hori betetzeko? Egindako guztiaren xehetasunak, bai eta mozioa onetsi zenez geroztik herritarrengandik gertuago dauden finantza-zerbitzuak ematea errazteko banku-entitateekin ezarri diren-formula guztiak ere.

Iruñean, 2023ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

10-23/PES-00055. Galdera, “Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntza, LGTBI+ arloa sustatu eta laguntzeko” kontusaileko diru kopurua aldatzeari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, “Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntza, LGTBI+ arloa sustatu eta laguntzeko” kontusaileko diru kopurua aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguí jaunak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 29ko 474E/2022 Ebazpenean – horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren dirulaguntzen deialdi bat onesten da– honako hau ebazten da:

1. Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren dirulaguntzen deialdi bat onestea Nafarroako toki entitateentzat, LGTBI+ arloko sustapen eta babes proiektuak egiteko 2023an.

Deialdi honen konpromisoari aurre egiteko gutua erreserbatzen eta baimentzen da, 10.010 eurokoa, 2023ko aurrekontuetan honako partida honen baliokide gisa gaitzen den partidaren kargura: 080001 08300 4609 232200 partida, "Nafarroako toki entitatei LGTBI+ sustapenerako eta babeserako dirulaguntza" izenekoa.

2023rako aurrekontuetan onetsitako partida, berriz, 30.010 eurokoa da.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

• Deialdia zergatik egin da 20.000 euro gutxiagorekin? Akatsa izan baldin bada, zer egingen da akatsa zuzentzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

10-23/PES-00056. Galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. taula zuzentzeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. taula zuzentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Otsailaren 6an, Eskubide Sozialetako kontseilariak 10-22/PES-00611 ekimenari erantzun zion, esanez 112 pertsonak jaso dutela laguntzaren bat laguntza-produktuak erosteko, eta pertsona bakoitzeko jasotako batez bestekoa 1.071,42 eurokoa izan dela.

Halere, 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txosteneko 3. taulan jasota dagoenez, dirulaguntza bat eskuratu duten pertsonen kopurua 199koa da, eta dirulaguntzaren pertsonako batez besteko zenbatekoa, 2.000 eurokoa.

1. Ebaluazio-txostenak zergatik jasotzen ditu kontseilariak bere erantzunean emandako zenbatekoekin bat ez datozen zenbatekoak?

2. Departamentuak jarraipen-txosteneko 3. taulan jasotzen den informazioa zuzentzeko asmorik al du?

Iruñean, 2023ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

10-23/POR-00024. Galdera, Nafarroa Arena Pabilioiaren eremuko herritarren energia-komunitatearen proiektuari buruzkoa.

IDATZIZKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKIDA:

1. Adieraztea aipaturiko ahozko galdera idatzizko galdera bihurtu izanaren berri izan duela.

Galdera 2023ko urtarrilaren 20ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-23/POR-00024 eta 10-23/PES-00057).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias